

## « Baserria eta itsasoa »

Arratsalde hartan ekaitza ustekabeen hasi zen, eta Txantxangorri txikia harrapatu zuen kabiatik urrun. Horregatik, Txantxangorrik erabaki zuen zuhaitz baten adar erraldoi azpian zegoen aterpe txiki batean sartzea. Txantxangorrik pentsatu zuen zuhaitz honen babesarekin euria eta ekaitza erraz pasatuko zirela.

Hala ere, bat-batean tximista ikaragarriak zerua zeharkatu zuen, eta tupustean Txantxangorriren aterpearen zuhaitzera heldu zen. Egia esan, tximistak ez zuen jo Txantxangorri zuzenki, baina tximistaren suak zuhaitzaren adar erraldoia moztu zuen, eta adarraren hostoek Txantxangorri lurrera bota zuten. Txantxangorri txikiak konortea galdu zuen eta etzanda geratu zen. Minutu batzuk pasatu ziren horrela...

Txantxangorri esnatu zenean, ekaitza urrun zegoen, eta atertu zuen.

- Zer moduz zaude Txantxangorri txikia? Zer gertatu zaizu? - ahots batek galdetu zion.
- Ondo nagoela dirudi. Baina, a zer sustoa! Tximistaren erruagatik adar handi hori niregana erori da. Begiratu, zelako txikizioa egin den! Dena dela, uste dut nire kabiara joan ahalko naizela hegan egiten. - erantzun zuen Txantxangorrik.
- Pozten naiz zu ondo zaudela entzuteagatik. - esan zuen ahotsak. - Ez kezkatu adarra apurtuta egoteaz. Batetik, zuhaitzak zauria sendatuko du eta bizirik segituko du. Eta bestetik, bihar goizean baserritarrak egurra hartuko du neguan baserria berotzeko. Ondo datorkio, ziur.
- Baserritarrak egurra hartzen du? - galdetu zuen Txantxangorrik.
- Bai noski! Maiz! Baina ez larritu, adarrak berriro hasten dira. Behin, etorri ziren baserritar batzuk eta adar eta zuhaitz asko moztu zituzten ondoko baserria egurrez eraikitzeko. Begiratu zelako baserri dotorea den!
- Bai. Ados nago zurekin. Baserri polita eraiki zuten. Eta zuhaitz horiek desagertu ziren?

- Ezta pentsatu ere! Baserritar horiek enberraren zuztar guztiak hementxe laga zituzten, eta geroztik, sustraiak bizirik zeudelako, hantxe adarrak berriro sortu ziren zuhaitz ederrak bihurtuz.
- Harrigarria!
- Egun, zuhaitz haiek zeintzuk diren ez duzu asmatuko oso garaiak baitira.

Txantxangorri oso interesatuta zegoenez, ahotsak jarraitu zuen:

- Beste behin, itsasgizonek berdin-berdina egin zuten, baina orduan, itsasontzia eraiki zuten. Pentsa ezazu, egur hori hemengo zuhaitzetatik sortua da. Hala eta guztiz ere, itsasoa zeharkatzen ari da. Entzun ondo, itsasoa! Zoragarria! Ikusi al duzu itsasoa? - galdetu zion ahotsak Txantxangorri.
- Bai. Itsasoa ikusi dut nire bidaietan, eta ados nago zurekin zoragarria dela benetan.
- Ni hemengoa naiz, baina batzuetan nire irudimenean ikusten dut ontzi hori izurdeekin jolasten ari dela, eta olatuekin dantzatzen ari dela. Eta maiz galdetzen diot nire buruari, urtean zehar zenbat portutan egongo den ontzi hori. Eta, zenbat istorio ezberdin ezagutuko ote dituen.

Txantxangorrik nostalgia pixka bat nabaritu zuen ahotsaren hitzetan.

Horregatik, esan zion:

- Aizu. Zeu, zaharra zara, ezta?
- Zahar-zaharra esango nuke nik.
- Baina, nolako zaharra? Zenbat urte dituzu, ba?
- Zure aitona-amonak baino zaharragoa. Zuhaitz hori baino zaharragoa. Ondoko baserria baino zaharragoa. Nik ezin dut esan zehazki zenbat urte ditudan, baina hemen egon naiz betidanik. Gainera, hemen geratuko naiz betirako, hemengoa bainaiz. Gauza asko ikusi ditut, eta gauza asko ikusiko ditut etorkizunean. Hori guztia dela eta, naiz hain jakintsua.
- Eta, ez al zaude nekatuta inoiz? - galdetu zuen Txantxangorrik.
- Inolaz ere ez! - erantzun zion ahotsak irribarretsu.

- Entzun, neguetan, lotan geratzen naiz, baina hurrengo udaberrietan, esnatzen naiz berriro indar guztiekin. Orduan, kimuak, lore koloretsuak, eta hostoak berriro sortzen dira eguzkiari begira. Hainbeste edertasunarekin ezin dut triste egon, ezta nekatuta ere!
- Zaharra, hemengoa, jakintsua, baina,... orduan, zeu nor zara? - galdetu zion Txantxangorri txikiak ahotsari jakin nahian.
- Neu? Neu naiz... Basoa.

BASerria eta itsasOA